



futura plana

Vitoria-Gasteizen Uraren Erabilera
Arrazionala Sustatzea

Fomento de la Utilización Racional
del Agua en Vitoria-Gasteiz



Aguas Municipales
de Vitoria-Gasteiz, S.A.

AMVISA

Vitoria-Gasteizko
Udal Urak, A.B.

SARRERA

Azken urteotan, herri-administrazioek eta plangintza hidrologikoaren esparruko erakundeek **ura kudeatzeko orduan kultura berri bat** geureganatzearen garrantzia azpimarratu dute, beren ekintza-planen bidez eta indarrean den arau-esparruaren bidez. Kultura berri horretan, ezinbestekoak dira hauek:

- Uraren ziklo osorako estrategia integralak definitzea: uren bilketa, garraioa, hornidura, ur zikinen sarea eta arazketa.
- Ur-ekosistemak babestea eta leheneratzea, eta urari duen balioa ematea, ondasun mugatua dela kontuan hartuta.
- Eskariaren kudeaketarako politikak aplikatzea.
- Ur-zerbitzuen kostu osoak berreskuratzea, tarifa egokien bidez; horren barruan sartzen dira azpiegituren amortizazioa, sortutako ingurumen-kostua eta uraren beraren balioa.
- Herritarren parte-hartzea.

Ura Aurrezteko Plan Integralaren garapenak eta gero AMVISAK landutako Futura Planak planteamendu horiek sendotzen eta Vitoria-Gasteizko uraren kudeaketa hobetzen lagundu dute 2004az geroztik.

2014-2017 aldirako Futura Plana ere AMVISAREN apustu estrategikoa da, hiriaren ingurumen-iraunkortasunerako politiketan eta kudeaketaren eraginkortasunean aurrera egiteko apustu estrategikoa; ildo horretan, hainbat jarduketa landuko ditu, bezeroei zuzentzen zaizkien zerbitzuen eskaintza zabaltzeko, informazio erabilgarria jartzeko biztanleen esku, sektorez sektore aztertutako ur-kontsumoaren azterketan sakontzeko eta eskaintzen den zerbitzu publikoaren eskakizunen aurrean bere posizioa indartu ahal izateko.



futura planaren ezaugarriak

Futura Planaren helburu nagusia **uraren ziklo integralaren kudeaketaren eraginkortasuna hobetzea da**. Horretarako, honako jarraibide hauetan oinarritzen da:

- Izaera integrala du, eta hainbat sektoreekin egindako lana da horren erakusgarri.
- Planaren barnean biltzen diren ekintzak unean uneko komenigarritasunaren, aukeraren edo beharraren arabera egokitzen dira, malgutasunez.
- Eraginkortasunaren bilaketa AMVISAK eskaintzen dituen zerbitzu guztietara eta bere barne-kudeaketara zabaltzen da.
- Uraren erabileran eta kudeaketan azken kontsumitzaileek egokiro dihardutenean, aitortu egingo da hori.
- Uraren kontsumoan, hobekuntzaren eredu izan behar du udalak.
- Kontsumitzaileekiko zuzeneko harremana eta herritarren parte-hartzea bultzatzen ditu planak.

Fase berri honetan, jarraibide horiek betetzeaz gain, udal-arloekin eta erakunde publiko nahiz pribatuekin **koordinatuta lan egiteko guneak bilatzeko** ahalegina egingo da, eta, zerbitzuaren beste alderdi batzuekin lotuta, **eduki berriak ere** txertatuko dira komunikazio-ekintzetan. Jarduketan irismena eta emaitzak hobetzeko xedez egingo da hori guztia.



egitura eta aurreikusitako jarduketak

Futura Planaren egitura zenbait sektore-programatan (egoitzak, erakundeak, industria eta merkataritza), zeharkako komunikazio-programa batean eta tokiko ur-baliabideak aztertzeko programa batean oinarritzen da. **2014-2017 aldirako proposatutako ekintzek elkarri lotuta dauden hiru lan-ildori erantzuten diete.**

1. Ur-kontsumoen ezaugarriak zehaztea, aztertea eta jarraipena egitea, sektorez sektore eta tarifa motaren arabera

- **Hiriko ur-kontsumoari buruzko urteko eta hiruhilekoko txostenak lantzea**, kontratua duen banakako subjektu bakoitzaren kontsumoaren eta fakturatutako zenbatekoen azterketa abiapuntutzat hartuta.
- **Udal-kontsumoaren gaineko txosten espezifikoak lantzea**, udal-eraikinetan, igerilekuetan eta berdeguneetan izan diren kontsumoen jarraipena eta kontsumitzaile handien banakako azterketa nahiz horien bilakaera oinarri hartuta.
- **Zehaztutako erabileretarako kontsumo-erreferentziak identifikatzea**, egindako diagnostikoari eta aholkularitzari esker.
- **AMVISAK Ura Berrir Erabiltzeko Planaren barnean jasotako datuak eguneratzea**, edateko erabilgarri ez den baina beste erabilera batzuk izan ditzakeen ur-bolumenari dagokionez: zundatzeak, igerilekuetako berritze-ura eta euri-ura.
- Fakturatutako etxeko kontsumoaren egitura errealaren arabera, **etxeko tarifaren jokaeraren simulazioak egitea**, zerbitzuaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioari ekarpenak egiteko.
- Vitoria-Gasteizko uraren kudeaketaz **herritarrek duten pertzepzioari buruzko azterlanak koordinatzea**.



egitura eta aurreikusitako jarduketak

2. Aholkularitza teknikoa ematea eta uraren kudeaketari buruzko diagnostikoak egitea.

- **Uraren erabilerari eta kudeaketari buruzko doako diagnostikoen programa garatzea** zentro berrietan, eta jardunbide egokitzat (“oso ondo”) hartzen direnak hedatzea. Aurreko urtearekin alderatuta kontsumoan desbideratze nabarmenak dituzten zentroi diagnostikoa egiteko proposamenak ere txertatuko dira, bai eta udal-iturri publikoei buruzko diagnostiko espezifikoak ere.
- **Diagnostikoa egin zaien zentrozen jarraipena eta etengabeko ebaluazioa egitea;** aldi behingo irakurketen programa bat eta urteko txostena, kontsumoaren bilakaera jardueren edo sektoreen arabera jasoko duena, sartzen dira horren barnean.
- **Aholkularitza tekniko espezifiko emateko kanpainak eskaintzea merkataritza-saltokiei.**
- **Nekazaritza-inguruetako uraren erabilerak aztertzea eta zuzeneko diagnostikoa egitea.**



egitura eta aurreikusitako jarduketak

3. Uraren balioari eta kudeaketa eraginkorrari buruzko informazioa ematea eta zabaltzea, eta herritarrek sentiberatzea.

- **Informazio orokorraren esparruko elementuak garatzea:** hiru hilabeteko informazio-orrria, fakturan jasotako informazioa edo bezeroei zuzendutako jakinarazpenak, www.amvisa.org web orriko edukien eguneratzea, sare sozialen erabilera, material berrien sorkuntza.
- **Udal-zentroak sentiberatzea,** informazio-euskarrien bidez edo Futura Planaren barnean landutako materialen bidez (informazio-puntuak, kartelak, eranskailuak), eta aurreikusitako lan-planaren barnean zentrozen arduradunek egindako proposamenak barnean hartuta.
- **Kontsumoak murrizteko kanpaina espezifikoak egitea:** informazio-kanpaina, etxeko kontsumo handienei zuzendua; "atez ateko" informazio-kanpaina auzoka; banakako etxebizitzetara zuzendutako kanpaina.
- **Uraren Mundu Eguna ospatzea (martxoaren 22a).**
- **Prestakuntza espezializatua eta hitzaldi, debate eta saioak antolatzea.**
- **Ur zikinen sarean jatorria etxean duten kutsatzaileei buruzko informazio-kanpaina bat egitea.**
- **Eskariaren kudeaketan egindako hamar urteetan (2004-2014) lortutako emaitzen berri ematea.**

AMVISAn, **banaketa-sarearen kontrol eta optimizaziorako** politika aktibo baten bidez osatzen da eskariaren kudeaketa; hots-korrelazio bidez isuriak hautematean, kontagailu zaharrak berritzean, zuntz-zementuzko sareak aldatzean eta sarearen kudeaketarako eredu matematikoak eta GIS sistemak erabiltzean oinarritzen da.



ESPERO diren emaitzak

	2003	2008	2012	2017rako helburua
Altako ura (hm ³ /urte)	24,5	22,0	19,7	19,5etik behera
Hornidura (litro/bizt./egun)	299	260	222	200-220 artean
Banaketa-sarearen errendimendua	% 85,9	% 89,3	% 89,4	% 90etik gora
Batez besteko etxeko kontsumoa(litro/bizt./egun)	123,8	120,7	111,1	105etik behera
Merkataritzako eta industriako eskari global garbia (litro/bizt./egun)	60,0	54,3	41,8	40tik behera
Erakundeetako eskari global garbia (litro/bizt./egun)	39,7	23,1	29,3	25etik behera
Ura aurrezteko sentiberatasuna erakutsi duten biztanleak(Otik 10erako indizea)	5,81	6,98	7,23	8tik gora
Aurrezteko ohitura duten biztanleak (horixe adierazi dute)	% 75	% 88	% 88	% 90etik gora
Eragina (garai horretan antolatutako ekitaldi ofizialen kopurua)		17	22	Gutxienez 20
Jarduera egokiak, garai horretan halakotzat hartutakoak		21	45	Gutxienez 40
150 ur-kontsumo handien pisu zehatza (kontsumo osoaren gaineko ehunekoa)			% 20,4	% 17tik behera
Etxeko erabileran kontsumo handiena dutenen murrizketa (hemendik gora: 600 litro/elementu/egun)				10%
Kontsumo handien pisu zehatza (kontsumo osoaren gaineko ehunekoa)			% 9,1	% 7tik behera
Kontsumoen zuzeneko jarraipena duten kontratuen kopurua			189	250tik gora
Ur zikinen sarea ondo erabiltzen duten biztanleak(hala adierazi dute)				%75etik gora

futura
plan plana

Informazio gehiago:

www.amvisa.org/futura

info@amvisa-futura.org

Futura Plana. Telefonoa: 945 011470

AMVISA. Bezeroen arreta. Telefonoa: 945 161000



Aguas Municipales
de Vitoria-Gasteiz, S.A.

AMVISA

Vitoria-Gasteizko
Udal Urak, A.B.